

= barneoyal: *entrada* = txartela: *butaca* = besaulki: *palco-platea* = begela edo bezizku: *palco principal* = gela-nagusi edo zizku nagusi: *palco-proscenio* = aurre-gela edo aurre-zizku: *anfiteatro* = inguroki: *delantera de anfiteatro* = inguroki-aurre: *galería* = agizko: *entrada de galería* = agizko-sarbide: *delantera de galería* = agizko-aurre: *actores* = antzezlarriak: *apuntador* = ixilesale: *traspunte* = oroitzale: *programa* = egitarau: *reparto* = banaketa: *representación (fiesta)* = antzoki jai: *representación (acto)* = antzekunde: *representación (objeto)* = antzekizun: *obra dramática* = antzerki: *obra cómica* = iri-antzerki, antzerki alai: *ópera-zarzuela* = eres-antzerki: *monólogo* = bakañizketa: *diálogo* alkañizketa.

Euskaltzaindiak itz abek aukeratu ditu ta abek erabiltzeko arén egiten diye antzerki-egile ta antzezleri guziei.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donostia'n Aldundi-Jauregian, 1926'ko Garagañila'ren 26'an.

Aurreko batzañaldiko euskaltzain ta ordekoak eta Ormaetxea jauna datoz. Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Ormaetxea jaunak txosten eder bat irakuri digu, *acento euskérico*, gai artu-ta.

II.—Lakonbe jaunak beste lan bat irakuri du ta auxe da beronen gaya: *Subfijos románicos del euskera*. Lan au Schuchardt jaunarena da ta atzizki abek aita-tzen ditu: *arius, ario, airu, aria, era, kera, eri, kerika, ke, eta, unde, kunde, asun, tasun*.

III.—Eguskitza jaunak diyo, asñ bear dala *Diccio-*

nario castellano-vasco egiten, Eusko-lkaskuntzari agindu zitzaionez. Beste ainbeste egin bear litzake *gramática dialectal*-ez bañan oraingoz benepein *Diccionario* orixe asi. Euskaltzaindiak Ormaetxea jauna izendatu du iztegi beñi oni dagozkion lanetarako ta 3.000 pesetako urteroko sariya emango zayo. Dei egin bear zaye itz beñi idorozaleai ta baldin nork edo nork egiazko 50 beñi balekarzki, saritzat iztegi-ale bat emango zayo ta bere izena goragaritzat *Diccionario* oren itzaurean aipatu.

IV.—Azkue jaunak irakuñi dizkigu *Subdialecto de Aezkoa* iragaritzat duen lana, ta *Balada de San Martín* Aezkoan bertan berak bildua.

Ta geyagoko gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzafaldi au.

Zumaya'ko Udaletxean, 1926'ko Urila'ren 29'an.

Zumaya'ko Udaletxean, Euskaltzaindiak jai ospetsu bat izan du. Bertako Udalak Euskaltzaindiari atariyan agur egin diyo ta onek ere, berez erantzun. Aguren ondoren, Udaletzeko gela-nagusian, Azkue maipuru jafi da, aldamenez izanik bertako Alkate jauna, Elizako apaiz-laguntzaile edo koajutore bat, apaizburua eritik urun dalako ta Eusko-lkaskuntzako zuzendari Julian Elortza jauna.

Bonifazio Etxegarai euskaltzain autuaren sañera da ta berau zumayañan izanik, eri guziyak onetsi nai luke ta egiaz eritar geyenak jai ontan olde-oldez daude. Gizozte aundiyak bete beterik dauka gela.

Or daude Azkue ezik, euskaltzain jaun abek: Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intza, Intzagarai, Lakonbe ta Etxegarai autua, urgazletatik Belaustegi-goitia ta Zinkunegi.